



Anjel Figueroa preso politikoa **OSASUN EGOERA LARRIAN!**

Anjel Figueroa (Algorta) 13 urte darama espetxean. Gaixotasun larria eta sendaezina du: epilepsia tenporala eta eskuinaldeko esklerosi mesiala. Horren ondorioz krisialdi epileptiko larriak izaten ditu, krisialdi horietan konortea galtzen du, eta tartean absentsziak, memoria galerak eta haluzinazioak ere izaten ditu.

Anjelen egoera gero eta okerragoa da. Gero eta krisialdi eta arazo ugariagoak ditu. Hala ere, administrazioak ukatu egin dio Kode Penalaren 92. artikulua aplikazioa, hau da, ukatu egin dio gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak baldintzapeko askatasunean kaleratzea aurreikusten duen legearen aplikazioa.

Preso guztiei dagokie osasun eskubidea, baita euskal preso politikoei ere. Gaur arte bost euskal preso politikoko hil dira kartzelan hainbat gaixotasunen ondorioz eta beste zazpi hil dira gaixorik kaleratu ondoren. Anjelek bezala gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten beste hamabi euskal preso politikoko daude. Horiei ere, 92. artikulua aplikatu behar zaie. Urrian atxilotu zituzten Josu Rodriguez (Berango) eta Txomin Gezuraga (Algorta) gazteek ere gaixotasun larriak dituzte, eta osasun eskubidea zor zaie.

ANJEL KALERA! herri ekimeneko partaideak Getxoko herritarrak gara. Anjelen egoera larriak bildu gaitu. Anjel kalean eta bizirik nahi dugu. Gure bitartekoak urriak dira. Baina dinamika ireki eta partehartzaileak bideratu nahi ditugu, zeregin honetan bakoitzak bere lekutik eta alorretik bere ekarpena egin dezan: inork ez dezala esan ez duela ezagutzen zer gertatzen ari den. Herritarren sinadura bilketa egin; herritar, talde, elkarte, sindikatu, alderdi eta gainerako taldeen atxikimenduak bildu eta; mobilizazioak, agerraldiak eta ekitaldiak antolatuko ditugu. Herri dinamika piztu nahi dugu, berandu izan baino lehen Anjel gure artean kalean izateko.

anjel kalera!

HERRI EKIMENA

anjelkalera@euskalerrria.org